INFORMAZIO ORRIA

elizalde HERRI ESKOLA

Zenbakia: 20 Astea: 2019-2-1

MATRIKULAZIO EPEA

Urtarrilak 28 - otsailak 8 bitarte, ostirala, 2019/2020 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita dago. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 943490193 telefono zenbakira eta Zuzendaritzan edozein kezka edo galdera argi dezakegu.

Matrikulazioa indartzeko, gaur arratsaldean bertan, 17:15etan, Oreretako Gamon zumardian dantza ikuskizuna antolatu dute: “txapela buruan eta dantza munduan”. Hurbil zaitezte eta gozatu.

IHOTEAK 2019 PRENTSA OHARRA BANDERAK

Ihotetako banderak Urratsen salgai!

Datorren otsailaren 22, 23 eta 24an ihote festa ospatuko dugu herrian. Hori dela eta, balkoiak apaintzeko banderak egin ditugu. Zortzi bandera ezberdin daude eskuragarri, auzo bakoitzarentzat bere kolorekoa, hain zuzen. Erdian irudi eder bat dute eta horrela kale eta auzoak alaituko ditugu. Banderak nahi dituenak salgai izango ditu Urrats paperdendan 6€ ren truke. Animatu eta apaindu balkoiak! Gora Ihoteak! Eskerrik asko. Ihote taldea

IHOTE ETA KARROXARAKO DANTZA ENTSEGUAK

Egutegiari begiratuz gero, Ihoteak laster izango ditugu, otsailaren 22, 23 eta 24ko asteburuan hain zuzen ere. Ihoteak, Oiartzungo inauteri jaia da eta guk, herriko eragile bezala, bertan parte hartze handia dugu. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Berriak diren familientzat, Zuzendaritzako bulegoan, mozorroa egiteko zaku oihala, biesak eta kriskitinak salgai daude, 6 eurotan ikasleentzat eta 8 eurotan helduentzat. Zaku mozorroa nola egiten den jakin beharko bazenute, ostiralero egingo diren dantza entseguetan (jantokian) hainbat guraso esku bat botatzeko egongo dira. Beraz, 2019ko otsailak 1, otsailak 8 eta otsailak 15ean, arratsaldeko 16:45etatik aurrera bertan elkar zaitezkete.

JANGELAKO PLATERAK

Azken abenduak 24ean, herrian zehar abesten ibili ondoren, eskolako jantokian hamaiketako ederra ospatu genuen. Hainbat familiek, tortillak eta bizkotxoak ekarri zenituzten. Ekarritako platera batzuk oraindik ez dira jasoak izan, horregatik, aukera duzuenean, hurbil zaitezte idazkaritzara plater horiek jasotzeko.

PERIODO DE MATRICULACIÓN

Del 28 de enero hasta el 8 de febrero, viernes, el periodo de matriculación está abierto para el próximo curso 2019/2020. En caso de necesitar más información llamad al 943490193.

Para apoyar la matriculación de la escuela pública, hoy por la tarde, a las 17:15 horas en Gamon, habrá un espectáculo de danza: “txapela buruan eta dantza munduan”. Acercaos y disfrutad.

NOTA DE PRENSA DE LOS IHOTES 2019

Banderas a la venta en Urrats

Los próximo 22, 23 y 24 de febrero se celebrará la fiesta de los Ihotes en el pueblo. Por ello, nuestro grupo ha hecho banderas para decorar los balcones. Hay 8 banderas disponibles, cada barrio con su color correspondiente. Tienen una imagen en el centro y así se podrán decorar nuestros barrios. Las banderas están disponibles a partir de hoy en la tienda Urrats a cambio de 6 euros. Animaos y decorad los balcones. ¡Viva los Ihotes! Muchas gracias. El grupo de Ihotes.

ENSAYOS PARA LOS IHOTES Y LA KARROXA.

Mirando el calendario, dentro de poco, celebraremos los Ihotes, el fin de semana del 22, 23 y 24 de febrero. Son los carnavales de Oiartzun y la escuela como agente activo en el pueblo, tenemos un gran participación. Por ello, debemos comenzar con los preparativos. Para las familias que son nuevas en la comunidad escolar, está a la venta la tela de saco para el alumnado a 6 euros y para los adultos a 8 euros. En caso de que necesitaráis ayuda en la confección del traje, habrá algunas familias en los ensayos de los bailes de los viernes por la tarde en el comedor, a partir de las 16:45 horas.

PLATOS DEL COMEDOR

El último día 24 de diciembre, cantamos villancicos y después hicimos un gran hamaiketako en el comedor. Muchas familias trajeron tortilas y bizcochos hechos en casa. Algunos de los platos utilizados todavía siguen en la escuela, cuando tengáis la posibilidad pasad por secretaría y para poder recogerlos.

ORDUTEGI BERRIA

Dakizuen bezala, duela aste batzuk, ordutegi aldaketa bat proposatu genuen: arratsaldez, 15:00etan hasi beharrean, 14:45etan hastea. Honek, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailako ikasleen egoera hobetzen baitzuen batez ere. Aipatu genuen bezala, gutxienez familien %50ak parte hartu behar du prozesuan eta horietatik 2/3ak proposamena onartu beharra du. LH eta HHn dauden 289 familietatik 241ek parte hartu zuten galdeketan, hau da %83.89ak eta 179 baiezko jaso genituen, hau da %73.66ak. Ondorioz, proposamena Ordezkarien Organo Gorenera eraman zen. Bertan, onarpena eman baino lehen, Guraso Elkarteak 3 proposamen egin zituen:

-Jardun jarraian (goizez bakarrik gaudenean) jangelako ordutegia 15:00ak arte mantentzea.

-Jardun jarraian (goizez bakarrik gaudenean) 09:00tatik 12:30etara izatea eskola saioen ordutegia.

-Bai irailean bai ekainean ere, jardun jarraiko egunak (goizez bakarrik gaudenean) 2 astez luzatzea, ez gehiago.

Aipaturiko 3 irizpide horiek txertatuta, ordutegi aldaketa proposamena Hezkuntza Sailera bidali genuen. Aurreko ostiralean bertan, informazio orria dagoeneko banatuta zegoela jaso genuen baiezko erantzuna. Beraz, datorren 2019/2020 ikasturtetik aurrera arratsaldez 14:45etan hasiko dira saioak eta lehenago aipatutako irizpideak mantenduko dira, Ordezkarien Organo Gorenean jaso genuen bezala.

SANTA AGEDA BEZPERA

Usadio zaharrei eutsiz, Santa Ageda bezperako bertso eta makila kolpez ama-lurra lozorrotik esnatu eta udaberriari etorrera emango diogu. Honetarako, eskolan entsegua egingo dugu eta ikasleak txapela, zapia eta makila ekarri beharko dituzte astelehenean eskolara. Arratsaldean, Guraso Elkarteak, merienda antolatu du jangelan, ondoren zuzenean abestera atera gaitezen. Lerro hauetatik parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

17:00 ikasleentzat merienda

18:00 familiak abestera

Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www. elizalde.eus

NUEVO HORARIO

Como sabéis, hace algunas semanas propusimos el cambio de horario escolar: en lugar de comenzar las clases a las 15:00 horas, empezarlas a las 14:45. Esto, beneficia sobre todo al alumnado de Eduación Infantil y primer ciclo de Educación Primaria, primero y segundo de EP. Como ya comentamos, en el proceso tenía que participar al menos el %50 de las familias y tenía que ser aceptado por 2/3 de las participantes. De las 289 familias de Educación Infantil y Primaria, participaron 241, es decir, el 83.89% y el 73.66% aceptó la propuesta, es decir, 179. Por consiguiente, la propuesta se llevó al Órgano Máximo de Representantes, en el cual, la Asociación de Madres y Padres, hizo tres propuestas muy concretas para la aprobación del cambio del horario escolar:

-Los días de jornada continua (sólo de mañanas) el horario del comedor se debía mantener hasta las 15:00 horas.

-Los días de jornada continua (sólo de mañanas) no se podían prolongar más de 2 semanas tanto en septiembre como en junio.

-Los días de jornada continua (sólo de mañanas) el horario escolar será desde las 09:00 hasta las 12:30.

Con los criterios de la Asociación, se envió la propuesta del cambio de horario a la Delegación Territorial de Educación. Conocimos la respuesta el viernes pasado, cuando la hoja informativa de la semana pasada ya estaba repartida. Por ello, informamos de que a partir del curso 2019/2020, las clases comenzarán a partir de las 14:45 por la tarde y se mantendrán los criterios aceptados en el Órgano Máximo de Representantes.

SANTA AGEDA

Manteniendo las costumbres, despertaremos a la madre tierra dando la bienvenida de la primavera con versos y golpes de palo. Para ello, haremos un ensayo de las canciones el lunes. El alumnado debe traer un palo, la txapela y el pañuelo de baserritara. Por la tarde, La Asociación de Madres y Padres, organizará una merienda en el comedor para después, salir a cantar. Desde estas líneas os invitamos a participar.

17:00 merienda

18:00 a cantar.

Más información en: www.elizalde.eus y

www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es